

www.noaua.com

# Noaua !!



Aurrerantzean, astero jasoko duzu NOAUA! etxean



Gorabeherak posta zerbitzuan  
**Noraezean dabiltza gutunak**

**Baserritarrengandik zure eskura  
zuzenean  
kamaratik pasa gabe!**



**NARANJAK  
MANDARINAK  
GAZTAINAK**



**Alkartasuna**

*Nekazal kooperatiba etxartea*

Ugarte Industrialdea 12  
Tfnoa. / Faxe: 943 361 114  
20170 USURBIL Gipuzkoa  
alkartasuna@usurbil.com



## Badok Amairu !!

## Jon Alustiza: "Arrano batean berpiztuko nintzateke"

1. JAKIRIK GOGOKOENA.  
Ez dut jaki gogokenik, paella eta arraina gustuko ditut, txitxarroa, batez ere.

2. OHITURA TXARREN BAT, BIZIO BAT.  
Lo asko egitea.

3. ZER GORDETZEN DUZU BETI SAKELAN?  
Diru-zorroa eta tabakoa.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?  
Arrano batean.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?  
Xomorroi eta sugeei, heriotzari ez.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.  
Nire aita.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...  
Bizitzeko dena da beharrezkoa.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.  
Galiziara txapapotea biltzera joan ginenean apaizaren etxean bazkaldu genuen. Mozkortu eta mahai gainean San Sebastianeko martxa abesten jarri nintzen urdaiazpikoa batuta modura hartuta.

9. LIBURU BAT.  
Ez naiz azkenaz akordatzen...

10. FILM BAT.  
"El hombre sin sombra".



11. LEKU BAT.  
Bartzelona.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.  
42 poligonoa.

13. URTARO BAT.  
Udaberria.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUAk IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUAk ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

SANTO TOMAS EGUNA, IRUDITAN **5. OR.**

KRONISTAK, KALEJIRAN **6. OR.**

GORABEHERAK POSTA ZERBITZUAN **8. OR.**

Posta zerbitzuak kexu ugari eragin ditu. Ez da gauza berria. Baina zer gertatzen da? Zerk huts egiten du? Zein da konponbidea? Hiru galdera horiek argitzen saiatu gara honako erreportajearen.



SANTUENEAK EGOITZA BERRIA DU **10. OR.**

LAPURRETAK UGARITU EGIN DIRA **12. OR.**

ARANTXA EIZAGIRRE, IZERDI PATSETAN **14. OR.**

SUDOKUA OSATZEN ASMATUKO AL DUZU? **17. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herra!

## Zutabea !!



LUIS ARANALDE

## Erljioen arteko kongresua: solasetik ekintzetara?

**L**ehengo astean bildu ziren Bilbon 10 erlijio nagusien arteko 500 teologo; igandean amaitu zuten beren batzarra. Zera eskatu zuten azken manifestuan: guztientzat etorkizun egokia eraikitzen saiatu behar zutela.

Kongresu honen antolatzaileen artean zeudenak, besteak beste, hauek izan ziren: Pax Romana, Barandiaran Kristau Elkarte eta Unesco Etxea.

Erljio guztiak bat datoz beren helburu nagusia zein den adierazterakoan: bakea eraikitzea; hau da beren erronka, apustu, ekimen nagusia. Kongresuaren hasierako ekitaldian, hain zuzen ere, Juan Jose Ibarretxek ideia hau azpimarratu zuen: "Bakea nahi izatea ez da nahikoa; aurrera egiteko ezinbestekoa da guztiok egitea lan bakearen alde". Bakeaz hitz egitea oso "eteroa" gerta daiteke, baldin eta eguneroko gatazka txikiak konpontzen saiatzen ez bagara.

Bake iturri eta eraikitzaile izateko, erlijioek etsai nagusi baten aurka borrokatu beharko dute: fundamentalismoa. Ez dago erlijio bat bera ere tentazio honetan erori ez denik. Beti da txarra fundamentalismoa, izan ere, intolerantziaren, zatiketaren eta liskarren iturburu baita. Absolutizatu egiten du erlatiboa dena, egiaren jabe bihurtzen da.

Eserientzia erlijiosoak beti izango da erlatiboa, bakoitzaren zirkunstantzien arabera. Beraz, nola jar dezaket nire esperientzia eredu absolututzat besteentzat? Kristau erlijioari dagokionez, Jesus nazaretarrak dena erlatibizatzen zuen pobreen eta baztertuen zer-

bitzurako. Bere esperientzia erlijiosoaren kriterio nagusia mundu honetako "parien" zerbitzua zen, horiengan sumatzen baitzuen Jainkoaren aztarnarik garbiena, tenplurik ederrena.

Edozein eror daiteke fundamentalismoak sortzen duen jarrera integrista, hertsia eta intransijente horretan. Besteen manipulazioa eta albokoan gainean jarri behar diren hori pertsona orok dauka gutxi gehiago.

Nola borrokatu horren aurka eta bakea eraiki? Nola lortu "elkarbizitza bidezkoa eta bakezkoa"? "Elkarrizketaren bidea lantzea" jarri dute helburu kongresukideek. Elkarrizketa hori bi puntutan oinarritzen da: "batetik, norberaren identitate eta tradizioekiko leial izatean eta bestetik, beste identitate eta tradizioak onartzean".

Ez nuke bukatu nahi gogoetatxo hau -eta beti bakearen hariari jarraituz- herenegun Eusko Jaurlaritzan burutu zen ekintza bat aipatu gabe. Ipar Irlandako bi erlijioso, Alec Reid eta Harold Good, bata katolikoa eta bestea protestantea, izendatu dituzte "René Cassin saria" jasotzeko. (René Cassin izan da Bakearen Nobel saria jaso duen euskaldun bakarra (1976). Baionakoa zen eta giza eskubideen batzordearen sortzaileetakoa). Hainbestekoa izan da erlijioso horiek egin duten lana Ipar Irlandan armak alde batera uzten eta bake eraginkorra sortzen! Inoiz ez dute sinetsi indarkerian, baina ez dira kontentatu ere gaitzestearekin bakarrik.

Noizko gure herrian horrelako bikote bat? Belengo Haurrak entzun gaitzala. Eguberri on!

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

## Hemeroteka !!

### Gure anaia Kandido joan zaigu

**Z**ubietan jaio zen. 1929an zuzen zuten profesia frantziskotarren artean eta 1937an apaiztu zen. Apaiztu orduko gerrara joan behar izan zuen kapilau bezala, alferrez mailarekin.



1939an itzuli eta Forun egonaldi laburra egin ostean, 1941ean Arantzazura etorri eta hemen egon da azkenera arte. Irakasle, bibliotekako arduradun eta artxibuzain, Elizbarrutiko zensore eta abarretan jardun

du. Bere ofizio maitea, hala ere, artxibuzainarena zen. Jende askotxok jaso du Aita Kandidoren laguntza bere tesia egiteko.

Joxe Arregik ederki bildu zuen Kandidoren izaera hileta-homilian, besteak beste esan zuenean: «zuhurra zen Kandido: zentzudun, burutsu, zorrotz, kritikoa» (...). Kristau izatea ez baita sineskizunei amore ematea. Sineskizunak aise bihurtzen dira sineskeria. Kandidoren fedea ez zuen sineskeriarik, eta sineskizun gutxi behar zuen.

Sustrai hobetan errota zegoen Kandidoren fede soila. Eta bere xalotasuna dugu horren frogarik onena. Xaloa zen Kandido, izen eta guzti (...).

Hainbat erakusteko, eta ezer erakutsi beharrik ez. Jakintsu eta isil. Jakintsu eta apal, gauza bera baita. Bere buruari garrantzirik eman beharrik ez. Zen baino gehiago izan beharrik ez. Xalo».

Arantzazu aldizkaria, 2005eko urria

BORDATXO  
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5  
Telf: 943 37 10 42

ITURGINTZA

J SE  
NGU EN

TELF 3 3 72



www.noaua.com  
USURBILGO ATARIA

## Jende gutxiago hurbildu zen arren, ederra izan zen Santo Tomas azoka

**L**agun asko Bertso Txapelketaren finala ikusten geratuko ziren. Beste urte batzuetan baino jende gutxiago ibili baitzen Santo Tomas azokan. Hala ere, bildu ziren guztiek gazta dastatu, taloa jan eta sagardoa edateko aukera izan zuten. Kontxi Urdanpilletaren babarruna izan zen lehiaketan nagusi. Sagardo onena, aldiz, Izetarena.

### Babarrun onena, Kontxi Urdanpilletarena

28 izan ziren babarrun lehiaketara animatu ziren herritarrak (iaz baino lagun gehiago). Kontxi Urdanpilletarentzat izan zen lehen saria. Bigarren, Idoia Orbegozok aurkeztutako babarrun kiloa izan zen. Hirugarren, Antonio Eizagirrek ekarritakoa.

### Sagardo onena, Izetakoa

Sagardo lehiaketan, aldiz, 14 izan ziren aurkeztu ziren herritar ekoizleak. Epaimahaiaren iritziz, Izetako sagardoa izan zen onena. Bigarren tokian geratu zen Egioletak ekarritako sagardoa. Hirugarren saria Arratzain baserriarentzat izan zen.

### Ramon Urdanpilletaren sagardoa ere, sarituen artean

Hori izan zen epaimahaiaren iritzia. Baina Santo Tomas azokara hurbildu zirenek ere, sagardoa dastatu eta iritzia emateko aukera izan zuten. Herritarrek emandako botoekin argitu zen hirugarren sari nagusia. Herritarren iritzia, ordea, bestelakoa izan zen. Izan ere, Ramon Urdanpilletaren sagardoa izan zen dastaketa irekian nagusitu zena.



KONTXI URDANPILLETA POZIK ZEN LEHEN SARIAREKIN.



AZOKARA AZALDU EZ BAZEN ERE, TXAPELA IZETARENTZAT IZAN ZEN.

## Akabo eguberrietako lehen txanpa



Abenduaren 19an eta 20an Zumarte Musika Eskolakoak Sutegin aritu ziren.



Abenduko azken egunetan, ekitaldi ugari izan da herriko frontoian.



Udarregiko gaztetxoak kantari irten ziren abenduaren 22an.



Haur Eskolakoak asto eta guzti atera ziren abenduaren 23an.



Presoen aldeko Olentzero ere iritsi zen abenduaren 24an.



Abenduaren 24ak irudi politikak utzi zituen.

TXOKOALDE

IÑAKI LABAKA

## Lapurretak eta kezka auzoan



Txikitatik daukat gogoan lapurrak ze urduritasuna sortzen zuten inguruan. Garai hartan, gaur Berriola lantokia dagoen lekuan, txanpaina eta sagardoa egiten zuten. Nagusiek ondasunak babesteko alarma zaratsua jarria zuten, eta lapurrak dirua zegoen kutxan bere hatzaparrak gainean jartzen zituztenean hasten zen ezinegona. Egunak argitzean, ikusten genuen nondik saiatu ziren lantokira sartzen.

Auzoko elkartean ere bi edo hirutan sartu dira azken urteotan txanpon batzuk eramanez, baina esan daiteke auzoan nahiko seguru eta lasai bizi izan garela, kezka larrik gabe. Egia da horrela ibiltzeko arrazoiak izan ditugula, etxeetan ez dugu orain artean lapurketarik ezagutu.

Azkenaldian kontuak aldatu egin dira. Herri osoan lapurketak ugari egin dira erabat. Gurean, bi etxetan, etxeok bertan izanda, gauean etxe barrun harrapatu dute gizonen bat lapurtzeko intentzioarekin eta behin bere burua galduta ikusirik bai laister aldegin ere. Beraz hemendik aurrera uste bagenuen paradisu batean bizi ginela, kontuz ibili beharra daukagu atea ondo itxiz, arrisku handia baitago edozein momentuan nahi gabeko bisitariak izateko. Hiri handitan entzuten diren kontuak aldamenera etorri zaizkigu alajaina!

Beste ezustekoa udalak eman digu. Gabon egunak girotzeko, izar argitsu batzuk jarri ditu auzoan.

Bukatzeko urtea ondo amaitzea eta berria primeran hastea opa besterik ez zait gelditzen. Urte berri on denoi.

KALEBERRI

IÑAKI AGIRRESAROBÉ

## Kultura merkatalguneetan



Herriko taldeek, gaur egun, meritu handia dute norbere herrietan zerbait antolatu eta jendearen erantzuna jaso nahi izanez gero. Olatu handia itsasoan barrena dabil zer harrapatu eta irentsi nahian. Olatu honek merkatalguneetako kresala darama eta herriko ekitaldi xumea ziprizzintadurik eta sarritan irentsirik gertatzen da.

Ekitaldira nor etorriko den zain dagoen antolatzailea prismatikoez begira somatzen dugu, eta hara non, merkatalguneetako parkina kotxez lepo ikusten duen: sare pelagikoaren aurka ezin arrantza egin. Hala eta guztiz ere, arrain txikiren batek ihes egin eta herriko kairako bidea hartzen du.

Eragozpen horiek alde batera utzita, urteroko kantu afaria antolatu zuen Nafartarrak kultur taldeak xiberutarrekin batera Agerialden. Bildutako koadrilak goizeko 3:30ak arte gozatzeko parada izan zuen. Etorririko xiberutar laukoteak bi eta hiru ahotsetara ederki abestu zuen, hurbildurikoen gozamenerako.

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

## Kantatzera nihoa...



Kantatzera nihoa bertso bat edo bi Euskadin badirela astekari anitz baina guretzat berriz aukera le(he)n aldiz astekari berri hau ikusteko begiz (bis)

Halere esan nahi det ibiltzeko tentuz hauek bait dabilta notiziyak bilduz handik eta hemendik usaia hartuz herriko gora-be(he)rak denei agertuz. (bis)

Bukatutze aldera azken esaldiak ikustear bait dira garai berriak entzun dezagun beraz zer dion herriak eta beste aldetik zer astekariak (bis)

ATXEGALDE

IONE EIZMENDI

## Bando, alkateak hala esan do!

Urtea ondo bukatzeko moduan gara aurtengoan. Notizia handi batekin natorkizue: eskailera mekanikoak auzoan!

Denok dakigu gure auzoa leku aldapatsuan egina dagoela eta eskailerak gora eta beheara ibili behar izaten dugula beti. Eguraldi txarrarekin arriskutsu bihurtzen da.

Duela urte batzuk Atxegaldeko auzo eelkartera egon zen martan auzoko beharrei aurre egiteko. Arazoa larria dela ikusirik, berriro elkartu dira irtenbide bat bilatzeko. Soluziorik onena eskailera mekaniko batzuk jartzea dela iruditu zaie. Gaur egun zenbait herritan jarri dira dagoeneko: Lasarte-Oriako Oztaran auzoan...

Alkateak begi onez ikusi du eskailera mekanikoak jartzea Aristitxo kaletik Goiko kaleraino. Abenduaren 28rako, Elkartekoek auzoko arkitekto baten laguntzaz proiektu bat egin eta udalean entregatu dute. Auzotarren artean bilera bat egingo dute elkarterako lehengo lokalean, eskailera mekanikoen proiektuaz hitz egiteko (egunaren berri emango da). Aurretik NOAUA!ko gure txokoan horren berri emateko eskatu didate. Eta nik, noski, gustora lagundu diet. Gainera, oso ideia ona eta beharrezkoa iruditzen zait, bai adineko jendearentzat eta bai haurrekin ikastolara doazentzat.



SANTUENEA

AGUSTIN ESNAOLA

## Inaugurazioa



**A**benduaren 17an auzoko kultur aretoa inauguratu zen. Bertara jende asko gerturatu zen. Luismari Ormaetxea Alkate Jauna buru zela, Salome Portu, Pedro Ibarra eta Julian Beraetxe zinegotziak udala ordezkatzen egon ziren.

Santueneko kultur elkarterko lehendakaria den Mari Carmen Orozek lokal honen ibilbidearen berri emanaz hitz egin zuen. Horretarako, Ibai-Ondo elkarterkoekin eta zaharren egoitzakoekin elkarlanean ibili zirela, eta jadanik 100 bazkide lortuta zeuzkatela. Nagusiki bazkideak emakumezkoak omen dira baina gizonetzkoak animatzen zituela bazkide izatera.

Hitzaldia bukatu ondoren, zinta mozketan Alkate jaunaren eskutik eta ondoren pintxo ugari jarri zituzten. Baina ekitaldiko sorpresa ederrena, Josune Aranbururen kantuak izan ziren. Jendeari asko gustatu zitzaion harekin abesteko aukera izatea.

Orain auzotarrei tokatzen zaigu protagonista izatea eta kultur aretoa bizirik mantentzeko parte hartu behar dugu ekitaldian.

Beste kontu bat: Santueneko behi pareak apustua jokatu du Aian. Baina esan behar da Bautistak, joan den urtean bezala, Bermeoko Pedernalesen kontra jokatzeko gogoarekin aurkitu dela. Aurtengoan bentaja pixka bat dauka, besteak 100kilo gainkarga gehiago eramango duelako. Ea zein den emaitza.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

## Eguberriak



**A**gur bero bat guztioi San-Esteban alde ahonetatik eta eguberri on! Eguberriak jada heldu badira ere, gure hiri eta herrietako kale argitsuek aspaldian adierazi digute eguberriak gainean zirela... eta baita heldu ere! Hilabete lehenago, salgai zeuden turroi, bonboi, langostino eta gabonetako zuhaitz eta hauek apaintzeko apaingarriak... Eta egia esan, urtetik-urtera gabonak gero eta negozio garrantzitsua goa bilakatzen ari dira!

*Gordoa*, umeen kantuak, gabon-kantak nonnahi, milioiak (batzuentzat), oroitzapen ederrez beteriko afari amaigabeak, familiaren goxotasuna, biharamunak, opariak, urte berri baten hasera eta ondorioz egin ohi diren promesak eta nola ez, gero eta aldapa-maila handiagoarekin hasten dugun urtarileko aldapa... Ez da ezertxo ere falta izaten!

Hala ere, eguberrietako egunek ere bere ondorioak izaten dituzte. Egun hauetan urtean baino energia gehiago kontsumitzen da eta produktuen kontsumoa ere areagotu egiten denez, hondakinen kopurua ere areagotu egiten da.

Gaurkoz besterik ez! Gabonak gustuko dituzuenok eta ez dituzuenok ere, bakoitzak bere modura, aprobeztatu egun hauek!!

AGINAGA

M<sup>A</sup>NGELES ARRUTI

## Gabonak eta urte bukaera

**U**rte bat gehiago, hau da hau azkar pasatzea. Orain dela gutxi ezagun bati entzun nion, "neska, hilabeteak baino lehenago joan zaigun urtea". Konturatzeko joatea, ondo aurkitzen garen seinale omen da, minez eta ezinean daudenei luze egiten omen zaie eguna ere.

Bestalde, pasa den larunbatean izan genuen gabon eskea. Goizeko 9:00etan eman genion hasiera auzoko gazte eta helduok. Hotzari aurre eginez, kanta eta trikitilariarekin ibili ginen auzoko etxeetan barrena. Ea ba ohitura zaharrak ez ditugun albo batera uzten eta jarraipena ematen diegun.

Bereziak izaten dira egun hauek etxean falta ditugunak gogoratzeko. Denak gogoan ditugula ahal den ondoen ospatzeko aukera izan dezagula. Agur bero bat eta urte berri on denei.



ZUBIETA

XABIER ARREGI

## Kartzelarik ez!

**A**zken boladan nonahi aditzen dugu Zubietan kartzela egitera doazela. Hasieran, gure artean zurrumurrua baizik ez zenean, alarma gorria piztu zen: "ez da posible! Zubietan kartzela?!" Baina, albiste nahasi horrek gero eta indar handiagoa hartu zuen, eta gaur egun ez dago dudarik. Benetakoa da albistea: Zubietan kartzela bat egitera doaz.

Kuriosoa da, ordea, zer nolako erreakzioa izan dugun. Hasieran, haserrea eta sumindura; gero, etsipena. Ez da manifestaziorik egin, ez da protesta ekitaldi bakar bat egin. Zubietako alkatearen eta herritarren iritzi batzuk jaso dira komunikabideren bategan, eta kitto. Besterik ez. Bien bitartean, kartzelaren proiektua ari da bere bidea egiten. Donostiako udalak eta inguruan dabilzan putreek interes ekonomiko handia dute Martutenen. Ez daude denbora galtzeko (...).

Kartzelarenak bueltarik ez balu ere, beharrezkoa litzateke beste eskakizun batzuk gizarteratzea: kartzelaren inguruko militarizaziorik ez (kontu jakina baita kartzelen inguruan uniforme guztietako pistoloroak pilatzen direla); bai, ordea, presoentzat bizi-baldintza duinak eta heziketarako aukera, eta, noski, bertakoei begira egin dadila eta ez kanpotarrak hona ekartzeko. Etsipena gainditu eta mugari gaitzen, bada. Egin diezaiogun aurre proiektuari, informatuz, ikasiz, gai hau landu dutenekin harremanetan jarritz. Ederra litzateke herri-plataforma bat antolatzea hausnarketei eta eskakizunei bide egiteko. Urte berrirako erronka interesgarria, askatasuna maite dugunontzat.

Kartzelaz idazten ari naizela, zuen oroitzapena datorkit behin eta berriz gogora. Adiskide presoek, jaso besarkada bana\*.



# Posta zerbitzuak kexu ugari eragin ditu

**E**z dugu ezer berririk esan. Herritar askoren ahotan da. Bereziki, kaxkoan bizi ez direnen artean. Gutun batzuk oso berandu iristen direla, batzuk inoiz iritsi ez... Badira bere postontzian beste bizilagunen gutunak jaso dituztenak. Horiek eta antzeko kexuak iritsi dira NOAUA!ko erredakziora. Zer gertatzen da? Zerk huts egiten du? Zein da konponbidea? Hiru galdera horiek argitzen saiatu gara honako erreportajearen.

Posta zerbitzuaz ari garenean, Correosi buruz ari gara hizketan. Lehenik eta behin, Correosek nola egiten duen lan aztertu dugu.

Gure inguruan lau postari ari dira lanean eta egunero irtetzen dira (asteazkero zehar, noski): postari batek furgonetan egiten du banaketa. Beste batek, oinez (kaxkoan ibili ohi dena). Gainontzeko biak, motozikleta bidez egiten dute banaketa.

## Lau postari, egunero lanean

Lau postari hauek ibilbide hauek osatzen dituzte:

Postari bat Zubieta, Kalezar, Munalurra eta Puntapax inguruan ibili ohi da.

Beste bat, Aginaga, Atxegalde eta Osinalde industrialdeak egiten ditu, besteak beste.

Oinez aritzen den postariak, aldiz, Kaxkoko ibilbidea osatzen du. Eta laugarren postaria, Santuenean, Txikiardiko enpresetan (Urbil, tartean) eta Osinalde industrialdean aritu ohi da.

Lau postari hauen artean egiten da banaketa-lana. Hala ere, posta zerbitzuaren funtzionamendua azken urteotan ez da zuzenena izan. Faktore bat baino gehiago aipa daiteke. Hasteko,



KAXKOAN BAINO, AUZOETAN ETA BASERRI INGURUETAN IZAN DIRA GORABEHERA HANDIENAK.

gutun denak Lasarte-Orian zentralizatzen dira. Nahiz Usurbildik Aginagara gutun bat igorri, bidalitako gutun hori lehenik eta behin Lasarte-Oriara doa. Han biltzen dira denak (pisu handikoak edo susmagarri izan daitezkeen gutunak edo paketeak, ordea, Donostiara bidaltzen dira).

## POSTA ZERBITZUA, EZBAIAN

“Gutun denak Lasarte-Orian zentralizatzen dira; postariak ere handik irtetzen dira”

Gutun denak Lasarte-Oriako egoitzan zentralizatzen dituztenez, postariak ere Lasarte-Oriatik irten ohi dira. Beraz, gure artean ibiltzen diren postari denek gutunak Lasarte-Orian jaso behar izaten

dituzte. Akaso, Usurbilgo gutunak Usurbilen bertan klasifikatu eta ordenatuko balira, eta postariak Usurbildik irtengo balira, denbora dezente aurreratu litzateke. Baina ez da denbora kontua bakarrik. Herritar batzuk adierazi digutenez, askotan gutunak ez dira inoiz iristen. Zentzu horretan, bada kontuan hartzeko beste faktorea. Postariarena. Usurbildik postari asko pasa dira. Oposizio bidez atera ohi dute postari plaza. Baina behin plaza atera eta gero, aldaketa eskatzeko aukera dute. Adibide batekin errazago azalduko dugu. Azkoitia edo Santander aldeko postariak aritu izan dira Usurbilen lanean. Etxe ondoan posturen bat atera zaienean, aldaketa eskatu eta ospa egin dute Usurbildik. Aginaga aldean ibili ohi den postaria da salbuespena. 20 bat urte egin ditu lan horretan. Gainontzeko posta-

**GORRITI**  
edaritegia

kafe berezia!

SAN ESTEBAN KALEA, 8 943 362 770

**J.ORBEGOZO**

ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.EBK 948372937 • 659602789



riek, ordea, ibilbidea ezagutu orduko, Usurbilgoa utzi eta beste herri batzuetara joan dira lanera. Lan mekanikoa den arren, txoko guztiak ezagutzeko denbora behar da. Bereziki, auzo eta baserri inguruen nondik norakoak barneratzeko. Baina tamalez, denboran pilatutako esperientzia hori ezin da transmititu. Esperientziarena, norberak ibiliaren ibilian ikasi beharrekoa baita.

### “Helbide asko gaizki datoz”

Usurbilgo Correoseko leihatilan egiten du lan Ana Arrojeriak. Usurbildarra da eta duela lau urtetik hona Usurbilgo egoitzan egiten du lan. Egunero leihatilan topatuko duzue. Anak esan digunez, “helbide asko gaizki datoz. Baserriaren izena baino ez da agertzen askotan”. Horrela zerbitzu on bat ematea zaila dela dio. Hala ere, onartu du zenbaitzuetan funtzionamendua ez dela behar bezalakoa izan. Bere ustez, “herria asko hazi da eta hori ere kontuan hartzekoa da”, aitortu digu.

Arazo gehien Zubieta, Kalezar, Munalurra, Puntapax aldeko ibilbidean eman direla adierazi digu Ana Arrojeriak. Hala ere, udatik hona bi lagun artean osatzen dute ibilbide hori.

Azken bolada honetan, herritar asko kexu azaldu dira. Horieta askok Correosera jo dute. Ana Arrojeriak esan digunez, “batzuk erreklamazioak ere egin dituzte”.

### ANA ARROJERIA (CORREOS)

“Herria asko hazi da eta hori ere kontuan hartu behar da”

Udalak, esate baterako. Erreklamazio orrialdeak Correosen bertan daude. Posta zerbitzua hobetzeko, Anak badu soluziorik: “nik aspaldi eskatu dut beste langile bat gehiago”. Antza denez, ez diote kasu handiegirik egiten. Udalak erreklamazioa egin duen bezalaxe, herritar gehiagok ere egin dute. Erabaki-ahalmena, dena den, Bilboko egoitza zentralak dauka.

Postari gehiago jarriz konpondu daiteke arazoa. Baina funtzionamenduan dago eztabaidaren beste gakoa. Lasarte-Oriak dena zentralizatu beharrean, Usurbilgoa Usurbilen kudeatuz, akaso, posta zerbitzuan eman diren arazo asko konponduko lirarteke.

## Bake Epaitegia: “Postari aldaketekin datoz arazoak”

**B**ake Epaitegiak posta zerbitzuaren beharra du. Zitazioak helarazteko, oso garrantzitsua da posta zerbitzuaren funtzionamendua egokia izatea. Bake Epaitegiko kideek esan digutenez, “arazoak postari aldaketekin datoz. Berri bat hasten denean, orduan nabaritzen dugu ez dela oso ondo ibiltzen”.

Garai txarragoak ezagutu dituzte baina orain ez dute kexurik: “azken bolada honetan hobeto dabilta”.

## Irailean erreklamazioa aurkeztu zuen Udalak

**K**altetuen artean Udala ere aurkitzen da. Irailaren 28an, Correosera bidalitako erreklamazioan, konponbide hau proposatzen zuen: “arazo larri honi irtenbide bat segituan bilatzea eta aurrerantzean Correosen zerbitzua Usurbilen bertan zentralizatzea eskatzen da udaletxetik”. Izan ere, ares-tian aipatu dugun bezalaxe, duela urte eta erditik hona Lasarte-Orian zentralizatzen da posta zerbitzua.

## Gorabeherak posta zerbitzuan

Nondik *	Nora	Zenbat egun
Usurbildik	Txikierridira	Egun 1
Usurbildik	Kalezarrera	Egun 1
Usurbildik	Aginagara	Egun 1
Usurbildik	Santuenera	2 egun
Usurbildik	Zubietara	4 egun
Usurbildik	Atxegalderra	5 egun
Usurbildik	Txokoaldera	5 egun
Usurbildik	Urdaigara	5 egun
Usurbildik	Bilbora	Egun 1
Usurbildik	Tolosara	Egun 1
Usurbildik	Lasarte-Oriara	5 egun
Usurbildik	NOAUA!ra (kaxkoa)	Egun 1
Bilbotik	NOAUA!ra (kaxkoa)	4 egun
Tolosatik	NOAUA!ra (kaxkoa)	4 egun
Donostiatik	NOAUA!ra (kaxkoa)	Egun 1
Lasarte-Oriatik	NOAUA!ra (kaxkoa)	4 egun

**C**orreosen gaia hobeto aztertzeo, ikerketa txiki bat egin dugu. Ez da zientifikoa izango, baina datu argigarri batzuk eman dizkigu. Azaroaren amaieran, hainbat gutun igorri genituen (taulan azaltzen direnak). Egia esan, irregulartasun handirik ez dugu sumatu. Ez da bidean gutunik galdu eta atzerapenak, orohar, ez dira kezkatzeko modukoak. Baina badira hainbat datu interesgarri:

- Usurbildik Bilbora egun batean iritsi zen gutuna, baina Usurbildik bertatik Atxegalderra, Urdaigara edo Txokoaldera bidalitakoak, bost egunetara iritsi ziren.

- Gutunak Lasarte-Oriako Correosen zentralizatzen direla esan dugu. Zergatik iristen dira bost egunetara Usurbildik Lasarte-Oriara bidalitako gutunak?

Alderantziz ere, berdin. Lasarte-Oriatik Usurbila igorritako gutunak Bilbotik eta Tolosatik igorritakoak bezain berandu iristen dira. Aldiz, Donostiatik Usurbila egun batean iritsi zen gutuna. Bitxia, ezta?

\* Gutunak ostegunez igorri genituen.

## Egoitza berria du Santueneak

**A**urreko alean iragarri bezala, abenduaren 17ko arratsaldean Santuenea Kultur Elkartearen egoitzaren inaugurazioa egin zen. Ekitaldira auzotar asko bildu ziren. Jada martxan zen baina abenduaren 17an egin zen egoitza berri honen irekiera ekitaldi ofiziala. Mari

Carmen Orozek, elkarteko lehendakariak, hitz batzuk egin zituen eta segidan Luismari Ormaetxea alkatearekin batera inaugurazio ekitaldietan ohikoa den zinta-mozketa egin zuten.

Josune Aranburuk hainbat kantu eskaini zituen eta ekitaldia lunch batekin amaitu zen.



SANTUENEA KULTUR ELKARTEAREN INAUGURAZIO EKITALDIAN TXIKI GERATU ZEN LOKALA.

JOSUNE ARANBURUK KANTUZ ALAITU ZUEN EKITALDIA.

### Jende ugari

#### Sutegiko saioetan

**G**abonetako ekitaldi ugari jaso dituzte Sutegiko auditorioak. Horiez gain, bestelako ekitaldiak ere izan dira Sutegin. Gari eta Niko Etxarten saioetan jende ugari bildu zen eta giroa primerakoa izan zen. Bide Ertzeanen saiora ere, lagun asko gerturatu ziren.

### Alejandro Tapiaren lanak, Tolosan ikusgai

**N**aturaren Ildotik izenburupean, Aginagako Alejandro Tapia pintore ezagunak 93 lan bildu ditu Tolosako Aranburu Jauregian. Erakusketa 2006ko urtarrilaren 31a arte zabalik egongo da. Ondoren, Iruñeko Ciudadela aretoak jasoko du erakusketa.

### Urtarrilaren 2an, odol-ematea

**A**diskidetasuna, elkartasuna adierazteko aukera berri bat izango dugu Usurbilen urtarrilaren 2an, astelehena, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, herriko ambulategian. Gure odola behar duenari eskainiz. Urte berri on guztioi!”, Odol Emaileen Elkarte.



# Kima

MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**



Obaba kalea 29 · ASTEASU

☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

## Duela 25 urte erail zuten Joxe Martin Sagardia

**J**oxe Martin Sagardia 1980ko abenduaren 30ean erail zuten Miarritzen. Egun batzuk berandago, "Batallón Vasco Español" deritzon talde armatu paramilitarra Joxe Martin errefuxiatuaren hilketaren egile aitortu zen Bilbon "Efe" agentziak zuen bulegora egindako dei baten bidez.

Goiz hotz hartan, egunero egin ohi zuten bezala, kotxez joan behar zuten lantokira, Hendaiako tailer batzuetara. Autoa martxan jarritakoan leherketa batek Joxe Martinen ibilgailua txikitu zuen. Leherketaren indarrak bi hankak ebaki zizkion, eta Joxe Martinen hilotza burdin txikituen artean gelditu zen. Gertaeraz jakin bezain laster asanblada eta mobilizazio ugari egin ziren herrian, baita Euskal Herri osoan ere.

### Milaka lagun omenaldian

Joxe Martinen gorpua abenduaren 31n ekarri zuten herrira, lehen omenaldia Miarritzen egin ondoren. Muga igarotzeko zailtasun ugari izan bazituzten ere, hilkapera zeraman autoaren atzetik beste 40 auto zituztela iritsi ziren herrira. Errepide nagusitik etorri ziren Lezo, Orereta, Donostia, Lasarte-Oria eta Usurbil gurutzatuz eta bertan bildu ziren ehunka herritarren azken agurra jaso zuen.

Hurrengo egunean, urtarrilaren 1ean hain zuzen ere, bere hileta egin zen herriko frontoian. Milaka lagun bildu ziren bertan Joxe Martini azken agurra ematera. Orduan HASIko buruzagia zen Santi Brouard eta HBko beste ordezkari batzuk parte hartu zuten omenaldian. Urtarrilaren 3an, berriz,



DUELA 25 URTE USURBILEN EGINDAKO OMENALDIA. AURTENGOA ERE FRONTOIAN IZANGO DA, ABENDUAREN 30EAN, 20:00ETATIK AURRERA.

Miarritzen manifestazio jendetsua burutu zen Joxe Martinen erailketa salatzeko.

### "Lasai ama, gabonak datoz eta"

Erailketa izan baino astebete lehenago familiaren bisita izan zuen, eta Joxe Martinek lasaitu egin nahi izan zituen Ipar Euskal Herrian ultraeskuinaren jarduera zela eta. "Lasai ama, gabonak datoz eta ziur ez dutela ezer egingo. Hala ere, hiltzen banaute zuk indartsua izan behar duzu eta nitaz harro sentitu. Nik borrokan aritzea erabaki dut herri honek merezi duela uste dudalako", esan zion amari azkeneko aldiz.

25 urteren buruan, udaletxeko plazak bere izena darama: Joxe Martin Sagardiaren plaza.

*"Herriak badaki, Usurbilgo memoria errepresiboa 1973-2002" liburutik jasoa.*

### Erbestean 7 urtez

**J**oxe Martin Bilbon jaio zen 1951ko apirilaren 6an baina txiki-txikia zela bere guraso usurbildarrak herrira itzuli ziren. 1973ko abenduaren 3an, aita hil eta hilabete gutxira, herria utzi behar izan zuen.

Ipar Euskal Herrian beste erbesteratu batzuekin bizi izan zen. Borroka ugari egin behar izan zituen errefuxiatu karta lortzeko.

1975eko maiatzaren 15ean Donibane Lohitzunen atxilotu zuten eta Baionan espetxeratu zuten.

1976ko urriaren 10ean, polizia frantsesak berritxo atxilotu zuten eta Yeu irlara konfinatu zuten. 1977ko maiatzaren 26an berriz ere atxilotu eta Porquerolles irlara konfinatu zuten.

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea

ogitartekoak  
eguneroko menua  
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

I n t e r n u - z r m u n l k

BENJAMIN MAJOR...

Telf: 943 36 61 21 Alperroburu, 1

# Lapurreta ugari eman da azken hamabostaldian

Txikierrdin, Aginagako Galdagorri eta Txokoaldeko Errementaldegin zein Leku-Ederren

**A**zken asteotan lapurreta ugari izan da. Abenduaren 15eko eguna ez dute erraz ahaztuko Txikierrdin, Aginagan eta Txokoalden. Arratsaldeko 19:00ak aldera, Aginagako Galdagorri baserrian sartu ziren eta baita gauza dexente lapurtu ere. Eta goizeko 3:30ak aldera, Txokoaldeko Leku-Ederren lapurtu zuten.

Biharamunean, ia ahotsik gabe zela erantzun zigun Leku-Ederreko Marijuli Iturraldek. "Lapurrazen atzetik 'Ladrón, ladrón' oihuka atera naiz eta ahotsik gabe nago orain".

## MARIJULI ITURRALDE

"Gu lasai bizi gara Txokoalden, kezkarik gabe. Baina orain beldurtuta gaude"

Denak ohean ziren Marijulik zarata sumatu zuenean. Seme zaharrena etxeratu zela pentsatu zuen lehenbizi. Jeiki, semearen logelara jo eta semea lotan zela

ikusi zuen. Sukalde aldera jo eta orduan konturatu zen etxean baten bat zebilela. Lapurra, Marijuli sumatu orduko, ziztu bizian atera zen: "aidean jeitsi ditu eskailerak. Gero korrika batean hasi da, maratoilaria zirudien". Oihuka hasi zen Marijuli eta bizilagun asko esnatu egin ziren. Zumetaenean ezkutatu omen zen lapurra. Gero, erriberatik Usurbila edo Illunbe aldera joko zuen, "etxetik zubia ikusten dugu eta handik behintzat ez da pasa", adierazi digu Marijulik.

## Lapurra, bakarra

Leku-Ederreko bizilagun honek azaldu digunez, "bakarra zen. Fuertea, *pasamontañas* batekin". Senarra eta semeak atzetik irten ziren baina ez zuten lapurrarekin eman.

Sukaldean, agerian zeuden 10 euroak eta Marijulik poltsoan eman ohi dituen giltzak baino ez zituen eraman lapurrak. Ostu dietena baino, pasatako beldurra da gehien mintzen diena. "Askotan, giltza eman gabe uzten dugu etxea. Baina aurrerantzean beste neurri batzuk hartu



BEHEKO SOLAIRU BATEAN BIZI BAZARA, ITXI ONDO LEIHO ZEIN ATEAK.

beharko ditugu". Lapurreta eta gero, berehala etxeko sarraila aldatu zuten.

"Beste toki batzuetan ere ibili dira. Aginagako Galdagorri baserrian ere sartu ziren. Gu lasai bizi gara auzoan, kezkarik gabe. Baina orain beldurtuta gaude", adierazi digu etsita Txokoaldeko Marijuli Iturraldek.

## Lurdes Kamino, Errementaldegikoa: "Babes falta sumatzen dut"

**A**beduaren lehen egunetan, Txokoaldeko Errementaldegi baserrian saiatu ziren lapurtzen. Kasu honetan ere, lapur bakarra sumatu zuten. Marijulik bezalaxe, Lurdes Kaminok ere baten bat lapurretan zebilena sumatu zuen bere etxean bertan. "Goizeko 2:00ak izango ziren. Zarata entzun nuen eta jeiki egin nintzen. Eskailera behera jeitsi eta gizezko bat ikusi nuen, ilun-

petan. Nire kotxean ezkutatu zen, kotxea irekita uzten baitu".

Berehala, lapurrak ihes egin zuen korrika eta Lurdesek ez zuen ezer gehiago ikusi.

Hamabost egun beranduago, Leku-Ederren lapurtu zutenean ere, zer edo zer arraroa sumatu zuen. Gaueko 1:30ak aldera edo, etxeko txakurraren zaunkekin esnatu zen. Lurdesek azaldu digunez,

"zaunka egiteko moduan pentsatu nuen ez zela normala. Senarra jeiki egin zen baina ez zuen ezertxo ere ikusi. Gero jakin genuen Leku-Ederren lapurreta eman zela".

Juli ere kezkatuta sumatu dugu: "ez naiz beldurtia, baina beldurtuta nago. Duela hamabost egun gure etxean, atzo Leku-Ederren. Babes falta sumatzen dut".

**LATAILLADE** ITURGINTZA  
 GASA BEROKUNTZA  
 MANTENIMENDUA ETA  
 KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK  
 Ariztititxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

**MAHUKA**  
 ETXEBERTE KALEA, 3 · 943 361 106  
 Uemen aurkituko duzu  
 gizon eta emakumezkoen  
**MODAKO ARROPA**

## Lapurren lana oztopatzeko hainbat aholku

**L**apurreta-kopurua altua izan bada **L**ere, herri lasaian bizi garela esan daiteke. Beraz, ez da alarma pizteko unea. Hala ere, lapurren bisitak ahalik eta gehien oztopatu asmoz, hainbat aholku bildu ditugu.

- Irratia piztuta utzi kalera ateratzera-koan, etxean norbait dagoen itxura emateko.

- Desbideratu deiak. Etxean inor ez dagoela egiaztatzeko deitzen baldin badute ere, beti erantzun du norbaitetik.

- Markatu gauza baliotsuak, lapur-zen badizkizute ezagutu ahal izateko.

- Dirua eta bitxiak gorde banketxeko segurtasun kutxan.

- Ez erakutsi aberastasunik jendaurrean.

- Bakarrik bizi bazara ere, jarri izen bat baino gehiago buzoiko txartelean.

- Itxi leihoak etxetik irteten zaren bakoitzean.

- Beheko solairu batean bizi bazara, itxi ondo leiho zein atea.

- Aldatu sarraila honako kasu haue-  
tan: etxebizitza berri batean bizitzen  
jartzean, aurrez alokaturik egon den etxe  
bat alokairuan hartzean, etxea berritu  
baduzu eta langileren batek giltzak esku-  
ra izan baditu, eta giltzak galtzen ditu-

zun guztietan.

- Jarri atean behatxulo panoramikoa, atea jotzen duen pertsona osorik ikusi ahal izateko.

- Etxeko atea blindatua baldin bada, egiaztatu markoari eusten dioten patil-  
llak horman ongi sartuta daudela. Blindatua ez baldin bada, gutxienez ixte-  
ko bi puntu izan behar ditu, ez du tarte-  
rik egon behar atetik lurrera eta giltzar-  
riek altzairuzko pibotez eta metalezko  
angeluz indarturik egon behar dute.

- Jokatu elkartasunez. Deitu Udaltzaingoari bizilagunen baten etxean gauza arrarorik sumatzen baduzu:

943 36 11 12.

## Andoaingo eta Usurbilgo LABeko delegatuak, presoekin bat

**U**surbilgo eta Andoaingo LAB sindikatuko delegatuak batzarrean bildu ziren abenduaren 16an, Aitzaga elkarte-  
an. Bilkura horretan, elkartasun agiri bat adostu zuten: Honela dio: "Herri zapaldu baten askatasuna borrokatze-  
agatik etsaiak preso dituen euskaldu-  
nak herri honen zati garrantzitsu ditugunez, LAB sindikatuaren gogoetetan zaudete, eta biziki esker ona agertzeaz gain gure adiskidetasuna ere helarazten dizuegu esaldi hauekin batera.

E uropako herririk zaharretari-  
koa, / L ehengo eta oraingoek borrokatutakoa, / K ementsu eutsitakoa, / A mets gaiztoak baztertutakoa, / R azzia guztiei erantzundakoa, / T ira-



KAXKOKO ERROTONDAN  
ELKARRETARATZEA EGIN ZUTEN.

noak desegindakoa, / A bertzean elkartasuna bilatutakoa, / S endi errepresaliatu(tako)ekin bat egindakoa, / U kabilaz XXI. gizaldira tinko iritsitakoa, / N ortasunez EUSKAL HERRIA izenekoa, / A skatasuna borrokaren bidez lortu beharrekoa".

## Udal langileen lan-hitzarmena

**B**erriki, EUDELeK eta hainbat sindikatuk aurre-akordioa sinatu dute. Honen arabera, soldaten igoera %4,1ekoa izango da. Abenduaren 20an, ez-ohiko udalbatza plenoan, aho-batez onartu zen EUDEL eta sindikatu-  
tuen arteko aurre-akordioa.

## Kreditu aldaketa

**A**banduaren 20an, ez-ohiko udalbatza plenoan, 2005eko udal aurrekontuaren 3. kreditu aldaketa onartu zen EA eta EAJ/PNVren aldeko botoekin. PSE-EE eta PP aurka azaldu ziren.

## Dimisioa Udalan

**A**rrazoi pertsonalak medio, Pedro Albarrak, EAJ-PNVko zinegotziak, bere kargua uztea erabaki du.

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Okindegia - Gozategia

**LABE-GOXO**

**LATXA**  
Kutxa denda

Janari prekozinatuak  
Kongelatuak  
Bertako produktuak

Kale Nagusia 2, Usurbil - Telf. 943 301 803

**MIKEL IZAGIRRE**  
ELEKTRIZITATEA

943 365 095  
609 068 111

5013 ARRI ETXEA, 37 KALZAR

**PATRI**  
**JATETXEA**

943 362 725

## Arantxa Eizagirre:

# “Neskak korrika egitera animatu nahi nituzke”

**K**orrikalari berantiarra izan da Arantxa Eizagirre zubietarra. Ikastolan atletismoan ibili bazen ere urteak egin zituen korrika egin gabe, baina duela zazpi urte inguru, kasketa bat tarteko, Amirigoia baserritik korrika egitera irten zen. Orduz geroztik ez da gelditu. Lasterketa ugaritan parte hartu du 39 urteko emakume honek eta garaipenak ere baditu. Abenduaren hasieran, adibidez, Zizurkilgo IX. Gau Krosa eskuratu zuen.

Inoiz ez da berandu korrika hasteko, galdetu bestela Arantxa Eizagirreri. Umeak izan ondoren hasi zen korrika eta famili bazkari bati zor dio hasi izana. Duela zazpi urte inguru anai-arrebak eta koinatu-koinatak euren artean berotu eta abenduan Zarautzen izaten den Bikoteen Krosean guztiek parte hartzeko zozketa egin zuten. “Niri bikotekide bezala koinatueta bat egokitu zitzaidan eta denek barre egin zuten txarrenarekin tokatu zitzaiolako. ‘Ah bai, prestatzen hasiko naiz’, esan nuen nirekiko. Egun hartan bertan etxera etorri eta Zubietara joan-etorria egin nuen”. Azkenean Arantxa eta bere koinatuak bakarrik egin zuten Zarautzen korrika.

### Behobia-Donostia, zazpi aldiz

Orduz geroztik lasterketa herrikoi askotan parte hartu du. Lasarte-Orian, Zizurkil aldean, San Silbestretan... baina Behobia-Donostia izaten da bere helburua. “Lasterketa hau kanpotik ikusia nuen eta inbidia handia ematen zidan. Hasiera batean ezinezkoa ikusten nuen. Hala ere, entrenamendu batean 14 kilometroko saioa egitean parte hartu neza keela ohartu nintzen. Honela egin nuen lehen aldiz. Oroitzapen onena dudana da lehenengo hura, pozik handiena eman zidana”.

Geroztik, zazpi urtez jarraian egin du

Behobia-Donostia, baina helburuak aldatu egin dira. Helburu nagusia bukatzea zena atzean utzi eta nahi gabe denborak hobetzeko dinamikan sartu zen. “Denborak estutuz joan naiz urtetan zehar eta sentsazio desberdinak izan ditut”. Lehenengo hartan 1:52:00 inguru egin zuen eta ia 1:28:29. Uste zuen ez zela marka hori jaisteko gai izango, baina aurten 10 segundutan hobetzeko gai izan da. “Gehiago estutu dezaketaren sentsazioarekin gelditu naiz”.

Horretarako, ordea, prestatu egin behar da eta bere kabuz egiten du hori Arantxak. Astean hirutan irtetzen da korrika egitera eta Zubietako bideak ondo ezagutzen ditu, bertan bizitzeaz gain bide horietan ibiltzen baita. “Nire gorputza ezagutzen dut jada eta badakit non eta nola entrenatu. Nire arazorik handiena denbora izaten da, nire lanak korrikarekin uztartzea, baina hala ere moldatzen naiz”. Aurrerantzean ere horrela jarraitu nahi du 39 urterekin txorakeriatan ibiltzeko adinik ez duela badakien arren.

### Zizurkilgo krosan garaile

Garaipenak ere baditu Arantxak. Abenduaren 2an Zizurkilgo Gau Krosa



IGELDOKO IGOERA BITAN  
 IRABAZI DU ARANTXAK.

irabazi zuen eta Igeldoko igoera ere bi aldiz irabazi du. “Zizurkilen ni baino hoberik joan ez zelako irabazi nuen, ez denbora hobea egin nuelako. Hala ere irabazteak badu bere xarma. Tarteka trofeoren batzuk ere eman izan dizkidate eta horrek beti motibatu izan nau”.

## Zubietan, korrika, mutilak nagusi

**K**orrika daramatzen zazpi urte hauetan, Usurbilen emakumeak korrika gero eta gehiago ikusten diren galdetu diogunean, ezetz erantzun digu. “Zubietan korrika egiterakoan pasatzen diren gehienak mutilak dira eta ez da neska askorik izaten. Entrenatu ere bakarrik egiten dut askotan eta pisutsua da. Usurbilen mutilen talde polita osatu da eta hauekin ibiltzen naiz batzuetan. Baina guztiak mutilak dira eta laupabost kilometrotan bakarrik jarraitu dezaket beraiekin”. Horregatik neskak korri egi-

tera animatu nahi lituzke. “Agian urrutiko gauza bat bezala ikusten bada ere, hasi ostean jarraitzeko gogoia izaten da”.

Berak, behintzat, gogoarekin jarraitzen du. Aurten maratonia egiteko kasketa sartu zaio buruan eta bere ibilbidea ikusita ziur lortuko duela. “Oraingoz egitasmo bat besterik ez da. Prestaketa handiago behar da, denbora gehiago ere bai eta nekea handiagoa izaten da. Lana, umeak, etxea... emakumeentzat ez da erraza. Hor daukat buruan, baina tokia aurkitu behar.”

# Oharrak !!

## ETXEBIZITZA

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Kotxea salgai. Ford Escort familiarra, TD. SS-BB. 657 796 780. Prezioa: 250 euro.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Garaje itxi bat salgai daukagu Erreka Txiki Kalean. 676636038.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian, 240 eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzeko da. 943 458 284.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

## LANPOSTUAK

### Lan-eskaerak

- Bakeirin snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamedua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906 / www.upriding.com webgunea.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteria ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635 209 193.
- Usurbilgo bi neska eskaintzen dira LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak emateko. Interesaturik bazaude deitu telefono honetara: 653711574 (Ainara eta Nerea)
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Lan egiteko gogoia daukat. Kanpotarra naiz eta edozein lan egingo nuke: portalak garbitu, plantxa egin, kanguro lanak astebukaeratan, pertsona helduekin, fregaderako lanak... 677 552 258 (Sharon).
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.

- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitean. 652 757 495.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bide-oko montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

## Lan-eskaintzak

- Kontzertuetan, produkzio lanetan aritzeko lan-poltsa osatu nahi da. Tel. 943 393 318.
- Astean behin, bizpahiru orduz etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dut. 605 707 643.
- Astean bi egunez frantseseko klaseak emango lituzkeen pertsona baten bila nabil. 943365737.
- Emakume euskaldun bat bilatzen ari gara etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko. Orduetgia eta baldintzak adosteko. 943 376 688.
- Arratsaldeta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu. 943361991.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Graduatutako betaurrekoak galdut, Bordaberri kale inguruan. Aurkitu badituzu NOAUA!ra ekarri mesedez.
- Txakurkumeak oparitzen ditugu. Ama artzai txakura alemana eta aita ezezaguna baina azkarra. 943366872 (Ander eta Joxe Mari)
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa eta prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Emuak salgai. Bi emu, arra eta emea modu onean saltzen dira. 657633461.
- Itsasoen arrantzan egiteko kainabera behar dut. Ahal bada teleskopikoa. Zurea erabiltzen ez baduzu, doan edo merke antzean emateko prest bazaude, gustura hartuko nuke. Tel: 676374812.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

## Txerrimunik ordainetan !!

**Zorionak Imanol!**  
 Abenduaren 18an hamaika urte egin zenituen eta muxu handi bat bidaltzen dizugu familia osoaren partez.



**Zorionak Pitxa eta Xomorro!!**  
 Zer egiten dugun baserriarrez jantzita? Amnistiaren aldeko Olentzeroa etorri zitzaigun herrira eta behar bezalako harrera egin behar zitzaioela ta gure gala jantziak armariotik atera eta herritik barrena ibili ginen. Zuek ere han zineten gurekin batera, gure bihotzetan.  
 Har ezazue zuen senide eta lagunuen partez zorion agur eta besarkada beroena! Animo ta eutsi goiari. Maite zaituztegu! Preso eta lheslariak etxera orain! Gora Euskal Herria askatua!



## JAIOTZAK

- Irati Indakoetxea Lizeaga, abenduaren 8an.
- Haitz Pagola Begiristain, abenduaren 13an.
- Ekhi Aranburu Zuriarrain, abenduaren 14an.

*\*(Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotako informazioa)*

## Telefono interesgarriak !!

- Udala.....943 37 19 51
- Udaltzaingoa.....943 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak .....943 37 01 48
- Eusko Tren.....943 47 09 76
- Anbulategia..... 943 36 20 13
- Udarregi Ikastola..... 943 36 12 16
- Udarregi (Agerialde).....943 36 38 95
- Haur Eskola (Kalezar).....943 37 40 61
- Oiardo kiroldegia.....943 37 24 98
- Zumarte .....943 37 15 94
- Etumeta euskaltegia .....943 37 20 01
- Taxi geltokia.....943 36 21 78
- D.Y.A. ....943 46 46 22

- Gure Pakea.....943 37 32 28
- Gure Elkartea.....943 37 17 51
- Arrate Egoitza.....943 36 63 40
- Bake epaitegia.....943 37 23 36
- Oa farmazia.....943 37 60 76
- Iturralde farmazia.....943 36 33 95
- Zubietako Batzarra.....943 37 20 77
- Argindarra (Iberduero).....943 47 09 76
- NOAUA! aldizkaria.....943 36 03 21
- Ertzantza.....112
- Suhiltzaileak.....112
- Larrialdiak.....112
- Anbulantziak.....112

## Begirale bat behar da Udarregin

**B**este begirale bat behar dute Udarregi ikastolako jangela zerbitzuan. 2006ko urtarrilaren 9tik aurrera lan egiteko, arratsaldeko 13:30etik 14:30era. Ikasleak egunero zaintzean oinarrituko litzateke lana. Lehenasuna dute ikastolako gurasoek eta guraso ohiek eta derrigorrezkoa da euskaraz mintzatzeari. Informazio gehiago: Auzo Lagun, Gloria Garmendia, 669 856 278.

**Zendoia**  
  
 Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

**ARRAINDEGIA PELLO**  
 Puntapax Kalea, 7  
 Tlf 36 21 64  
 USURBIL

**M N CENILL**  
 k r - n t u r t  
 t l l u k  
 r z t z - l u k  
 n t u r - l u k r h r  
 Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL  
 MOBILA: 629 46 09 66

**ZUBIAURRENEA 4 USURBIL**  
 i l e a p a i n d e g i  
  
 mistoa  
 943361951

### Aholkua !!

## Ospakizun garaia, aje garaia

**E**guberri egunez hasten den ospakizun ziklo honetan, gehiegi edatea ohiko kontua da. Arazorik ez izateko neurri egokiena ez edatea litzateke; dena den, edaten baduzu, ondorengo aholkuak baliogarri izango zaizkizu.

#### Zentzuzko edalea

- Gogoan izan edaria janaria laguntze-ko dela, ez alderantziz.
- Kontuz "alkoholik gabeko" garagar-koekin. Gehientsuenen izendapenak "alkohol gutxidun" izan beharko luke. "Alkoholik gabeko" gehienek %1eko alkohola izaten baitute.
- Gogoan izan: azken tragoxka hartu

denetik ordu betera iristen dela alkohole-  
mia maila gorenera.

#### Ajeari nola aurre egin?

- Ondo lo egin. Jaiki bezain laster hartu dutxa, odol zirkulazioa suspertzeko.
- Ez gelditu etxe zuloan egun osoan, horrela burukomina areagotu egiten da.
- Hartu elikagai arinak, urdaileko mukosa narritatzen ez dutenak: jogurta edo kafesnea (ez kargatu larregi).
- Orekatu bitaminen galera: hartu laranja edo bestelako fruta freskoen zukua.
- Ez hartu aspirina gehiegi: urdaila gehiago mindu diezazuke. Horren ordez, hartu ibuprofenoa.



#### Gidari zoazela, tantarik ez

- Edanez gero, ez gidatu. Erreflexuak apaltzen dituenek, istripua gertatzeko aukerak ugaritu egiten du.
- Etilometroan "positibo" emateak 600 eurorainoko isuna eta gidatzeko baimena lau urterako kentzea ekar diezazuke.

### Eguneko goardiako farmaziak

**Abenduak 28, asteazkena**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Abenduak 29, osteguna**  
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Abenduak 30, ostirala**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Abenduak 31, larunbata**  
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Urtarrilak 1, igandea**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Urtarrilak 2, astelehena**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Urtarrilak 3, asteartea**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Urtarrilak 4, asteazkena**  
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Urtarrilak 5, osteguna**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Urtarrilak 6, ostirala**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Maria Jose Chucla, Kardaberaz Kalea 48,  
Hernani. 943 55 17 93 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

### Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN  
Zubieta-Donostia  
7:55\*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/  
14:35\*(T)/ 19:15(T)

Donostia-Zubieta  
(Gipuzkoa plazatik)  
7:15\* /9:00/ 12:45(T)/  
13:45\*/18:45

LARUNBATETAN  
Zubieta-Donostia  
8:15(T) / 12:45 /  
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)  
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN  
Zubieta-Donostia  
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15,30(T)/  
21:35 (T)

Donostia-Zubieta  
(Gipuzkoa plazatik)  
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/  
21:00 (T)

\* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

### Autobus ordutegia Donostia-Zarautz

Donostia	Usurbil	Zarautz	Donostia	Usurbil	Zarautz
07.40	08.05	08.25	15.00	15.20	15.45
08.00	08.25**		15.40	16.05	16.25
08.00	08.20	08.25	16.00	16.20	16.25
08.40	09.05	09.25	16.40	17.05	17.25
09.00	09.20	09.30	17.00	17.20	17.45
09.00	09.20	09.25	17.40	18.05	18.25
09.40	10.05	10.25	18.00	18.20	18.30
10.00	10.20	10.45	18.00	18.20	18.25
10.40	11.05	11.25	18.40	19.05	19.25
11.00	11.20	11.45	19.00	19.20	19.25**
11.40	12.05	12.25	19.00	19.20	19.25
12.00	12.20	12.25**	19.40	20.05	20.25
12.00	12.20	12.25	20.00	20.20	20.30
12.40	13.05	13.25	20.00	20.20	20.25
13.00	13.20	13.30	20.00	20.20	20.25
13.00	13.20	13.25	21.00	21.20	21.25
13.40	14.05	14.25	21.00	21.20	21.25
14.00	14.20	14.30**	22.00	22.20	22.25
14.00	14.20	14.25	22.30	22.50	23.15
14.40	15.05	15.25			
15.00	15.20	15.30	00:00	00:25	00:45
			02:00	02:25	02:45
			04:00	04:25	04:45
			06:00	06:25	06:45

■ Soilik larunbata gauzez # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

■ Larunbat lanegunetan ■ Soilik larunbata gauzez \*\*Aiara

Harremanetarako: 902 54 32 10 / [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)

### Autobus ordutegia Zarautz-Donostia

Zarautz	Usurbil	Donostia	Zarautz	Usurbil	Donostia
06.45	07.05	07.30			
06.45	07.05	07.10	14.45	15.05	15.30
07.15	07.35	08.00	14.45	15.05	15.15
07.45	08.05	08.30	15.30	15.35	15.55*
07.45	08.05	08.15	15.45	16.05	16.30
08.15	08.35	09.00	15.45	16.05	16.15
08.45	09.05	09.30	16.45	17.05	17.30
08.45	09.05	09.15	16.45	17.05	17.15
09.30	09.35	10.00*	17.45	18.05	18.30
09.45	10.05	10.30	17.45	18.05	18.40
09.45	10.05	10.15	18.45	19.05	19.30
10.30	10.35	11.00	18.45	19.05	19.40
10.45	11.05	11.30	19.45	20.05	20.30
10.45	11.05	11.15	19.45	20.05	20.30
11.45	12.05	12.30	20.45	21.05	21.30
11.45	12.05	12.15	20.45	21.05	21.40
12.45	13.05	13.30	21.15	21.35	21.40
12.45	13.05	13.15	21.15	21.35	21.40
13.30	13.35	13.55*	21.45	22.05	22.40
13.45	14.05	14.30	23.15	23.35	00.00
13.45	14.05	14.15	01.15	01.35	02.00
			03.15	03.35	04.00
			05.15	05.35	06.00

\*Aiariak dator ■ Asteburutan, jaietan

■ Larunbat lanegunetan ■ Soilik larunbata gauzez

Harremanetarako: 902 54 32 10 / [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)

### Tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09:20#	-	09:47#	10.08	10.24	10.39
09.47	10:03	10:20	11.08	11.24	11.39
10.47	11:03	11:22	11.22#	-	11.47#
11.47	12:03	12:20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12:33*	12:50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13:03	13:20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13:33*	13:50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14:03	14:20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14:33*	14:50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15:03	15:20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15:33*	15:50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16:03	16:20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16:33*	16:50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17:03	17:20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17:33*	17:50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18:03	18:20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18:33*	18:50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19:03	19:20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19:33*	19:50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20:03	20:20	20.08	20.24	20.39
20.21#	-	20:48#	21.08	21.24	21.39
20.47	21:03	21:20	22.07#	-	22.32#
21.47	22:03	22:20	22.38	22.54	23.09

\* Asteegunetan bakarrik

#Ez da Usurbilen geratzen

Harremanetarako: 902 54 32 10 / [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)

Harremanetarako: 902 54 32 10 / [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)



## Agenda !!

### Abenduak 29/30

- Puzgarriak frontoian.  
Ordutegia: 11:00-13:00/ 17:00-19:00.

### Abenduak 29, osteguna

- Nasdrovia Chejov! antzerki saioa, 20:30, Sutegi. Sarrerak, aldez aurretik: kiroldegia, udal errejistroa.

### Abenduak 30, ostirala

- 20:00etan frontoian gudariei omenaldia. Antolatzailea: Ezker Abertzalea.

### Abenduak 31, larunbata

- Mendeku itXua, 01:00ean, frontoian.

### Urtarrilak 3, asteartea

- Diskoteka, karaokea frontoian.  
Ordutegia: 17:00-21:00.

## Literaturaren txokoa !!

### Bernardo Atxagaren "Lekuak"

Bere izenak Badierazten duen bezala, lekuez hitz egiten du libururak. Egilearen jaioterria ez ezik, Paris, Maroko, Salzburgo eta beste hainbat azaltzen dira bere orrialdeetan. Hala ere, liburuko leku batzuk ez dira geografikoak, edo ez behintzat geografikoak bakarrik. Halaxe gertatzen da "Obaba", "Euskadi", "Euskal Hiria" eta beste batzuekin. Kasu horietan,



poesiaren edo politikaren esparruetara zabaltzen da gaia.

Irakurleak era askotako testuak aurkituko ditu ataletan; gogoetak aurkituko ditu, ipuinak, bidaia-kronikak, komentario umoretsuak edota dramatikoak, kritikak. Nolanahi ere, orrialde guztiek kontakizun bakarra osatzen dute, bereziki beren oinarri biografikoagatik. Leku desberdin askotan gertatu delako idatzi du egileak liburu hau, eta bere esperientziaren berri eman nahi izan digulako.

## Sudoku !!

Egilea: LUMA.

		5	1	9			8	6
		8	7					
	1					9		
1		9			4			
	3	6				4	9	
			5			6		8
		7					6	
					1	8		
3	4			6	2	5		

9x9ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ezin duzula errepikatu errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3x3ko laukian ere.

Soluzioa noaia.com orrialdean, 219 alearen atalean.

## Egin kontu !!

### Urte Zaharreko kontzertua gaueko 1:00etan hasiko da

Mendeku itXuak kontzertua Meskainiko du Urte Zahar gauean herriko frontoian. 1:00etan hasiko da eta 2:00ak arte iraungo du herriko talde honen emanaldiak. Kontzertuaren ondoren diskoteka hasiko da.



MENDEKU ITXUAK ALAITUKO DU URTE ZAHAR GAUA.

Euskadi Gaztearen 15. Maketa Lehiaketan parte hartzen ari da Mendeku itXua eta Interneten lehenengoetakoa zen botoen arabera. Urte Zahar gauean, zuzenean eskai-

niko dituzte maketa lehiaketara aurkeztu dituzten abestiak. Festak diskotekarekin izango du jarraipena.



**txirriStra**  
KONTSEJU ZAHARRA TS  
943 360 400

pin txoak  
ogitartekoak  
platea konbinatuak

**TABERNA**

Larazaintza  
sartak

**URTINEA**  
urtinea@euskalnet.net

Larazak  
karaok  
Landareak

Sau Esteban  
943 360 255  
943 366 054 fax

# Finantza erakundeak ere, euskaraz

## Buruntzaldeko udalek hitzarmena sinatu dute Euskadiko Kutxarekin

**O**rain hiru urte pasatxo sinatutako hitzarmena berritu dute Buruntzaldeko udalek eta Euskadiko Kutxa finantza erakundeak. Ekimen zehatzak eta eraginkorrak erabiliz, euskararen erabilera areagotzeko konpromisoa hartu du Euskadiko Kutxak. Abenduaren hemeretziaren, Euskadiko Kutxak Donostian duen egoitzan sinatu zen hitzarmena

Harategiak, arrandegiak, jatetxeak, lanbide heziketa jorratzen duten ikastetxeak... euskararekiko konpromisoa hartzen ari diren jarduerak ugari dira Buruntzaldean. Udaletako euskara batzordeak finantza erakundeen artean ere ate joka ari dira eta, hasteko, Euskadiko Kutxarekin hitzarmena sinatu berri dute.

Euskararen erabilera areagotzeko lau urteko hitzarmena sinatu dute Buruntzaldeko udalek eta Euskadiko Kutxak. Eskualde euskaldunenetan euskarak trataera berezia behar duela adierazi dute hitzarmenaren sinatzaileek, "soziolinguistikoki euskaldunak gehiago diren eremuetan euskararen erabilera ere halakoa izan dadin eskatzen baitu".

### Hitzarmen berria, aurrerapausua

Hitzarmen hau aurrerapausu bat da, 2002ko apirilaren 22an erakunde eta instituzio hauek sinatu zuten akordioarekin alderatuz gero. Erabilera zabalduta eta indartu egingo baita hitzarmen berriarekin. Nola? Bada, oso ekimen zehatz eta eraginkorrekin. Hona hemen adierazlerik garrantzitsuenak:

-Bezzeroari lehen hitza euskaraz egingo zaio.

-Lehen libreta, kontu edo txartela irekitzerakoan azalpenak euskaraz eman eta txartela euskaraz erabiltzea eskainiko zaio. Gazteei bereziki.

-Sukurtsalean bertan idatzitako dokumentuetan euskarari lehentasuna emango zaio. Kanpotik etorritako erdarazko propa-



HITZARMENA DONOSTIAN SINATU ZEN.

ganda ez da ikusgai jarriko.

-Kontuetan erregistratu eta idazteko eragiketarak, langileak idatzi behar dituenean, euskaraz idatziko dira.

-Euskadiko Kutxak sortzen dituen publizitate slogan edo gisakoak euskaraz sortuko dira, gaztelaniaz sinatutako itzulpen soil eta kaxkarrak izan ez daitezten.

### Euskararen erabilera

Bakoitzaren betebeharrak ondo lotuta geratu dira. Buruntzaldeko udaletako euskara batzordeak hitzarmen honen edukia eta bere garapenaren berri herritarrei adierazteaz arduratuko dira. Eta, gainera, euskararen erabilera gehitzeko lanean jardungo dira. Euskadiko Kutxak, bere aldetik, euskararen ahozko zein idatzizko erabilera neurtzeko baliabideak ipiniko ditu.

Konpromisoa eraginkorra izan dadin, hitzarmenaren sinatzaileek jarraipen batzordea sortuko dute, hitzartutako helburuak lortu eta emaitzak aztertzeko.

Euskadiko Kutxarekin hitzarturiko sinadura-ekitaldian Usurbilgo udal ordezkariak ez ziren egon. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide izatean (UEMA), Usurbilek dagoeneko sinatuta du oso antzekoa den hitzarmena.

### Beste finantza erakundeak, piskanaka bada ere, aurrera

**K**ontu korronteak, diru mugimenduak, inbertsioak, maileguak... Gizarte osoak harreman estua dauka finantza erakundeekin. Piskanaka bada ere, erakunde hauek euskararen erabilerean garrantziaz ohartzen ari dira. Hauen betebeharrak bada euskaldun orok duen hizkuntza eskubideak bermatzea.

Kutxak euskara plana badu eta zenbait udalerritan lan eraginkorra egiten ari da. Adibide bat jartzearren, Zestoako Kutxako bulegoak euskara modu duinean erabiltzeko ardura hartu du.

Oro har, beste erakundeetan, euskara kontuan hartzen duten kasuak egon badira. Ez asko, egia esan. Baina etorkizun oparo baten aurrekariak izan daitezke. Nafarroan, Caja Rural erakundeak Etxarriko udalarekin euskara erabiltzeko konpromisoa hartu du.

Caixa, BBVA, Banco Guipuzcoano... euskara planik ez dute baina publizitatea egiteko orduan euskara erabiltzen dute. Ez da nahikoa, baina bada zer bait.



## Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza

Finantza



erakundeekin harremanak euskaraz



Andoain, Astigarraga, Hornani,  
Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo  
Udaletako Euskara Batzordeak

# ATXEGA JAUREGIA



Hotela



Jatetxea

Ezkontzak, jaunartzeak, ... edozein ospakizunetarako toki egokia  
Eguneroko menuak • Plater konbinatuak • Ogitartekoak • Pintxoak



[reservas@hotelatxega.com](mailto:reservas@hotelatxega.com)  
Aitzearra kalea  
Zumartegi Poligonoa  
☎ 943 37 11 50  
☎ 943 37 66 66 (Hotela)